

# 18

**GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIA**  
**FESTIVAL DE CINE Y DERECHOS HUMANOS**  
**HUMAN RIGHTS FILM FESTIVAL**

**DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN / 2021**

**23 - 30** apirila / abril / April

Human  
Rights  
Film  
Network

Connecting  
human rights  
film festivals  
around the world



JACQUES BIDOU Y MARIANNE DUMOULIN PRESENTAN

SADAF BEHNAZ BABAK  
ASGARI JAFARI KARIMI



# YALDA, LA NOCHE DEL PERDÓN

UNA PELÍCULA DE  
MASSOUD BAKHSHI

YALDA, A NIGHT FOR FORGIVENESS. ESCRITA Y DIRIGIDA POR MASSOUD BAKHSHI  
CON SADAF ASGARI, BEHNAZ JAFARI Y BABAK KARIMI. FERESHTEH SADR DRAFAEI, FOROUGH GHOBAGHLI, ARMAN DARVISH, FERESHTEH HOSSEINI. PRODUCCIÓN DE JACQUES BIDOU, MARIANNE DUMOULIN. CÁMARA: JULIAN ATANASSOV. EDICIÓN: JACQUES COMET. SONIDO: DANA FARZANEHPOUR. DENIS SECHAUD. ARTE: MAHMUD BAKHSHI. LEILA NAGHDI PARÍ. VESTUARIO: RAANA AMINI. COPRODUCTORES: NICOLE GERHARDIS, JOËLLE BERTOSSA Y FLAVIA ZANON. BADIO MINCK Y ALEXANDER DUMREICHER. VANCEANU, GEORGES SCHOUCAR, FRED PREMEL, ALI MOSAFTA. UNA PRODUCCIÓN DE JBA PRODUCTION, NIKO FILM, CLOSE UP FILMS, AMOUR FOU LUXEMBURGO, SCHORTCUT FILMS, TITA B PRODUCTION, ALI MOSAFTA PRODUCTIONS. EN COPRODUCCIÓN CON ZDF ARTE, RTS, SRG SSR, VOO BE-TV, PANACHE PRODUCTIONS Y LA COMPAGNIE CINÉMATOGRAPHIQUE. CON EL APOYO DE EURIMAGES, CNC FILM FUND LUXEMBURGO, PICARNOVO Y CON EL APOYO DE REGION HAUTS-DE-FRANCE. EN ACUERDO CON CNC, MEDIEBOARD BERLIN-BRANDENBURG, FILMFÖRDERUNGSANSTALT, FFC, NORMEDIA, REGION BRETAGNE CINEFORUM, BREIZH FILM FUND, TORINOFILMLAB, PYRAMIDE, COOPERACIÓN BELGA.

AU DESARROLLO: SUNDANCE, BON GAH, ANGOLA, VENTUS PYRAMIDE INTERNATIONAL.

avaloncine www.avalon.me

AVALON

# AURKEZPENA

Giza Eskubideen Zinemaldia bere adin-nagusitasunera iritsi da. Gaztea bada ere, Zinemaldiak heldutasunerako bidea hartu duela iradokitzen digu hemezortzigarren edizioak, sendotu egin baitu bere eskaintza, arrakasta publikoaren babesean oinarritu duen es-kaintza, alegia.

Izaera komertzial txikiagoko eta konpromiso handiagoko zinema baten aldeko apustuak bere tokia aurkitu du gure hirian. Emanaldiek interes handia pizten dute beste erreferentzia batzuk ezagutu, beste diskurtso batzuk eta muga berriak aurkitu, ahots desberdinak entzun eta eztabaidea zaharrak eta berriak planteatu nahi dituen jendearengan. Azken batean, gozamen estetiko hutsa baino asmo handiagoko helburuak dituen zinema batekin bizi, gozatu eta sufritzeko aukera ematen dio jendeari.

Joan den urtean, dena aldatu duen pandemiaren ondorioz, Zinemaldia ezin izan zen egin. 2021. urtean, berriz, inoiz baino indar handigoarekin itzuli da, agian beharrezkoagoa delako zalantzazko garai hauetan. Izan ere, eztabaidea berriak sortzen ari dira, eta bere garairekin konprometituta dagoen kultura ezinbesteko bizigai da gizartearentzat.

Pentsaraziko diguten, hunkituko gaituzten eta arrastoa utziko diguten filmekin gozatuko dugu berriz. Azken batean, arte konprometitua gizarte-ekintza egiteko eta pertsonak eta kolektiboak eraldatzeko modu bat da. Apaltasunetik, baina asmo handiz, Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldiak gizakiaren alderdirik onenarekin adiskidetzen gaituen gune bat kokatu du gure bizi-mapa txikian.



# PRESENTACIÓN

El Festival de Cine y Derechos Humanos cumple su mayoría de edad. Pese a su juventud, la decimoctava edición nos sugiere que esta cita camina hacia la madurez, toda vez que ha consolidado una oferta cuyo principal éxito es el respaldo del público.

La apuesta por el cine menos comercial y más comprometido ha encontrado un espacio en nuestra ciudad. Las proyecciones encuentran un interés de gente ávida por conocer otras referencias, buscar otros discursos, descubrir nuevas fronteras, escuchar voces diferentes, plantear viejos y nuevos debates. En definitiva, para vivir, gozar y sufrir con un cine que busca siempre objetivos más ambiciosos que el mero disfrute estético.

El año pasado el Festival no se pudo celebrar debido a la pandemia que todo lo ha cambiado. Pero en 2021 vuelve con más fuerza que nunca, porque quizás su existencia sea más necesaria en estos momentos inciertos que generan nuevos debates y en los que la cultura comprometida con su tiempo se convierte en alimento imprescindible para la sociedad.

Volveremos a disfrutar de películas que nos harán pensar, que nos conmoverán, que nos dejarán huella. A fin de cuentas, el arte comprometido es otra forma de acción social, de transformar personas y colectivos. Desde la humildad, pero con ambición, el Festival de Cine y Derechos Humanos de Donostia sitúa en nuestro pequeño mapa vital un espacio que nos reconcilia con lo mejor del ser humano.



DONOSTIA

SAN SEBASTIÁN

Donostiako Alkategoa

Alcaldía de San Sebastián

ENEKO GOIA LASO

Alcalde de Donostia / San Sebastián

# PRESENTATION

The Human Rights Film Festival comes of age. Despite its youth, the eighteenth edition suggests that this rendezvous proceeds towards its maturity having consolidated an offer whose main success lies in the backing of its audience.

The commitment to less commercial and more engaged cinema has found a space in our city. The screenings stir an interest in people eager to discover other references, seek out other discourses, discover new borders, hear different voices, address debates old and new. In short, to live, enjoy and suffer with films that always strive to attain more ambitious objectives than simple aesthetic pleasure.

Last year the Festival was unable to proceed due to a pandemic that has changed everything. But in 2021 it returns with more strength than ever because perhaps its existence is even more necessary in these uncertain times with their new debates, where culture committed to its time becomes an essential nutrient for society.

Once again we will enjoy films that will make us think, that will move us, that will leave a mark on us. At the end of the day, engaged art is another form of social action, of transforming people and collectives. From a humble stance, but with ambition, the San Sebastian Human Rights Film Festival places on our small vital map a space that reconciles us with the very best of the human being.



DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN  
Donostiako Alkategoa  
Alcaldía de San Sebastián

ENEKO GOIA LASO  
Mayor of San Sebastian

UN DOCUMENTAL DE

NERVIO

# AITA MARI



DIRECCIÓN JAVI JULIO PRODUCCIÓN SANTI DONAIRE EDICIÓN/MONTAJE IGOR ARABAOLAZA GUION FERNANDO ERRE PRODUCCIÓN EJECUTIVA NERVIO OPERADORES DE CÁMARA JAVI JULIO, IGOR ARABAOLAZA, RICARDO GARCÍA VILANOVA, CELIA HERNÁNDEZ, PASCAL POISSONNIER, IÑAKI GEREÑU, BEÑAT GEREKA SONIDO ENTREVISTAS DANIEL IGLESIAS ANIMACIONES IGOR ARABAOLAZA COLOR IRUSOIN POSTPRODUCCIÓN DE SONIDO XANTI SALVADOR, KOLDI CORELLA BANDA SONORA PELLO RAMÍREZ TÉCNICO SONIDO ESTUDIO VÍCTOR SÁNCHEZ (ELKAR ESTUDIOA) DISEÑO TÍTULOS Y CARTEL BELÉN BEMBÉ TRADUCIONES FERNANDO MAHIA, EDOU THIAM

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

BERRODISTAK JUSTIZIA  
ETA OZASTE POLITIKETAKO BAILA

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA  
Y POLÍTICAS SOCIALES



ESTIBAZUNA  
DURAN  
EL TULEJO



araba Álava  
foro aldundia diputación foral

Orona  
Fundazioa  
Foundation

Irizar

INAUGURAZIOA

---

INAUGURACIÓN

---

OPENING NIGHT

---

Irango zigor-kodearen arabera, hilketa *qisekin* zigortzen da, "begia begi truk" printzipioaren baliokide. Horrela, biktimaren familiek heriotza-zigorra eska dezakete. Hala ere, "odolaren prezioa" ere erabil dezakete, *diya* izenez ezagutzen den lege islamikoa, konpentsazio ekonomikoa dakarrena, edo, besterik gabe, barkamena ematea.

Iran Human Rights elkartekoak bildutako datuen arabera, gaur egun barkamena ematen duten edo "odolaren prezioa" aukeratzen duten familiak gehiengoa dira, heriotza-zigorra eskatzen dutenen aldean. 2019an, elkarteko horrek 374 kasu identifikatu zituen; 2015ean 262 kasu izan ziren. Hortaz, handituz doa kopurua.

Human Rights Watch-ek adierazi duenez, Iranen, urteetan hedatu egin da "barkamenaren mugimendu" ezaguna, aktibistek, kazetariekin eta esparru judizialean lan egiten duten pertsonen egindako lanaren ondorioz. Batez ere, adingabeengan eta senarrak hiltzeaz akusatuak izan diren emakumeengan egin dute ahalegina. Familia askok ezin dutenez "odolaren prezioa" ordaindu, aktibismoak diru-bilketa publikoetara jotzen du, non pertsona ospetsuek parte hartzen duten zenbaitetan.

Horrela, bizitzeko eskubidea diruarekin eros daiteke, eta horrek klaseen arteko desberdintasunak areagotzen ditu. Era berean, biktimen familien barkamenak eta iritzi publikoaren presioak markatzen dute zigorren norabidea, lehenik eta behin bizitzeko eskubidea bermatu beharko lukeen sistema juridiko batek ezarritakoa izan beharrean. Telebistako saioetara ere jo izan dute, orain antenatik kanko daudenetara, akusatuari zuzentzen zaion biktimaren familiaren barkamena ikuskizun morbosoa bihurtzeko.

---

Según el código penal iraní, el asesinato se castiga con las *qisas*, lo que equivale al principio del "ojito por ojito". Así, las familias de la víctima pueden solicitar la pena de muerte. Sin embargo, también pueden recurrir al "precio de la sangre", ley islámica conocida como *diya*, que implica una compensación económica, o, simplemente, conceder el perdón.

Según los datos recogidos por la asociación Iran Human Rights, las familias que en la actualidad conceden el perdón o eligen el "precio de la sangre" son mayoría respecto a las que piden la pena de muerte. En 2019 esta asociación identificó 374 casos, respecto a los 262 de 2015. Así, el número va en aumento.

Human Rights Watch defiende que durante años en Irán se ha expandido el conocido "movimiento del perdón", debido al trabajo realizado por activistas, periodistas y personas que trabajan en el ámbito judicial. Sobre todo, los esfuerzos se han centrado en menores de edad y mujeres que han sido acusadas de matar a sus maridos. Como muchas de las familias no pueden costearse el "precio de la sangre", el activismo suele recurrir a recolectas públicas en las que a veces participan personas famosas.

Así, el derecho a la vida se puede comprar con dinero, lo que acrecienta las diferencias entre clases. Asimismo, el perdón de las familias de la víctimas y la presión de la opinión pública marcan el sentido de las condenas, en lugar de que las imponga un sistema jurídico que debería garantizar, ante todo, el derecho a la vida. Incluso se ha llegado a recurrir a programas de televisión, que ya no están en antena, para convertir en morboso espectáculo el perdón de la familia de la víctima a la persona acusada.

---

According to the Iranian criminal code, murder is punished with *qisas*, the equivalent of the "eye for an eye" principle. The victim's family can therefore call for the death sentence. However, they can also claim "blood money" under an Islamic law known as *diya*, involving economic compensation or, simply, the granting of pardon.

According to data compiled by the Iran Human Rights association, families who currently grant pardon or choose "blood money" are in the majority with respect to those who demand the death sentence. In 2019 the association identified 374 cases, compared to the 262 of 2015. The number is therefore on the rise.

Human Rights Watch defends that for years the so-called "pardon movement" has been spreading in Iran thanks to the endeavours of activists, journalists and people who work in the legal sphere. Above all, efforts have focused on minors and women accused of killing their husbands. Given that many of the families cannot pay the price of the "blood money", activism tends to turn to public donations in which famous people sometimes participate.

The right to life can therefore be bought with money, a factor which aggravates class differences. The pardon granted by the victims' families and the pressure of public opinion similarly mark the type of sentence handed down, instead of being imposed by a legal system which should guarantee, above all, the right to life. Recourse has even been taken to television programmes, which no longer run, to turn the pardon granted by the victim's family to the accused person into a morbid pageant.

# YALDA, LA NOCHE DEL PERDÓN

## Yalda, a Night for Forgiveness (2019)



Iran, gaur egun. Maryamek 22 urte ditu eta 65 urteko bere senarra, Nasser, hil du ezustean. Heriotza-zigorra ezarri diote. Hala, Nasserren alaba Mona da salba dezakeen pertsona bakarra. Nahikoa izango da Monak telebista saio batean zuzenean eta milioika ikusleren aurrean Maryam barkatzea. Reality showa Yalda gauean da, neguaren hasiera markatzen duen gauean. Urteko gaurik luzeena da, eta are eta askoz ere luzeagoa bi emakumeentzat.

Irán en la actualidad. Maryam, de 22 años, mata accidentalmente a su marido, Nasser, de 65. Es condenada a muerte. La única persona que puede salvarla es Mona, la hija de Nasser. Basta con que Mona perdone a Maryam en directo en un programa de televisión ante millones de televíidentes. El *reality show* tiene lugar la noche de Yalda, que marca el comienzo del invierno. Es la noche más larga del año, y para las dos mujeres lo será mucho más.

Iran today. Maryam, 22 year of age, accidentally kills her husband, Nasser, aged 65. She is sentenced to death. The only person who can save her is Mona, Nasser's daughter. Mona simply has to pardon Maryam live on a television programme before millions of spectators. The reality show takes place during Yalda, the winter solstice celebration. It is the longest night of the year, and for the two women it will be even more drawn-out.

Iran-Francia-Alemania-Suitza-Luxenburgo-Libano

**Zuzendaritza:** Massoud Bakhshi

**Ekoizpena:** Jacques Bidou, Marianne Dumoulin / JBA Production, NiKo Film, Close Up Films, Amour Fou Luxembourg, Tita B Productions, Ali Mosaffa Productions, Shortcut Films

**Ekoizpenkidetza:** Nicole Gerhards, Joëlle Bertossa, Flavia Zanon, Bady Minck, Alexander Dumreicher-Ivanceanu, Ali Mosaffa, Georges Schoucier, Fred Prémel

**Gidoia:** Massoud Bakhshi

**Argazkia:** Julian Atanassov

**Muntaketa:** Jacques Comets

**Aktoreak:** Sadaf Asgari, Behnaz Jafari, Babak Karimi, Fereshteh Sadre Orafaee, Forough Ghajebeglou, Fereshteh Hosseini, Arman Darvish

**Iraupena:** 89 min

**Kontaktua:** Avalon  
[www.avalon.me](http://www.avalon.me)

\* Festival de Sundance (2020): Gran Premio del Jurado (World Cinema Dramatic)



ZURE  
KOMUNIKAZIO  
TALDEA

TU  
GRUPO DE  
COMUNICACIÓN



**BUKAERA**

---

**CLAUSURA**

---

**CLOSING CEREMONY**

---

Hutuen eta tutsien arteko lehia etnikoen gertaera odoltsuenen aurrekariek garai kolonialean eta aro postkolonialean dute sorburua. Hala, 1980ko hamarkadaren amaieran ia milioi erdi ruandar zeuden errefuxiatuta Burundin, Uganda, Zairen eta Tanzanian.

Ruandako gerra 1990ean hasi eta 1994an gogortu zen, herrialde horretako eta Burundiko presidenteen aurkako atentatu hilgarriaren ondorioz. Izan ere, horrek eragin zuen tutsi populazioaren ia % 75en eta milaka hutu moderaturen hilketa sistematikoa 100 egunez jarraian.

Burundik ere sufritu zuen gatazka etniko hura. Afrikako herrialde txiki hori gerra zibil batean murgildu zen 1993 eta 2005 artean, hutu matxinadaren ondoren Armadak kontrolatzen zuen tutsi gutxiengoaren aurka. Urte luze haietan, sarraskiak egin ziren, eta, kalkuluen arabera, 300.000 pertsona inguru hil ziren euren etnikotasunaren ondorioz. Arusako Bake Akordioa 2000. urtean lortu zen arren, urte batzuk beranduago arte ez zen sinatu Tanzaniako hiriburuan Su Etenaren Akordio Orokorra, hutuen eta tutsien arteko bakea agintzen zuena.

Burundiko gatazka etnikoen Egiaren eta Adiskidetzearen Batzordea 1885eko alemanen kolonizaziotik 2008ra arte izandako sarraskiak ikertzen ari da. Orain arte, 4.000 hobi komun baino gehiago aurkitu ditu, eta 140.000 biktima baino gehiago identifikatu ditu.

---

Los antecedentes de los episodios más sangrientos de las rivalidades étnicas entre hutus y tutsis se remontan a la época colonial y a su etapa postcolonial. Así, a finales de los años 80 había casi medio millón de ruandeses refugiados en Burundi, Uganda, Zaire y Tanzania.

La guerra en Ruanda comenzó en 1990, y se recrudeció a raíz del atentado mortal contra los presidentes de ese país y Burundi en 1994. Fue la chispa que provocó el exterminio sistemático de aproximadamente el 75% de la población tutsi y de miles de hutus moderados durante 100 días consecutivos.

Burundi también sufrió ese conflicto étnico. El pequeño país africano se sumió en una guerra civil entre los años 1993 y 2005, tras la rebelión hutu contra la minoría tutsi que controlaba el Ejército. Durante estos largos años, se cometieron masacres y se estima que murieron unas 300.000 personas debido a su etnicidad. Aunque el Acuerdo de Paz de Arusha se alcanzó en el año 2000, no fue hasta años después cuando se firmó en la capital tanzana un Acuerdo General de Alto el Fuego que prometía la paz entre hutus y tutsis.

La Comisión para la Verdad y la Reconciliación de conflictos étnicos de Burundi investiga las atrocidades cometidas desde la colonización alemana en 1885 hasta el año 2008. Hasta el momento, ha encontrado más de 4.000 fosas comunes e identificado a más de 140.000 víctimas.

---

The background of the bloodiest episodes of ethnic rivalries between Hutus and Tutsis dates back to colonial and postcolonial times. Thus, in the late 80s, there were almost half a million Rwandan refugees in Burundi, Uganda, Zaire and Tanzania.

The Rwanda Civil War started in 1990 and worked itself into a frenzy with the assassination of the presidents of that country and Burundi in 1994. This was the spark that triggered the systematic extermination of approximately 75% of the Tutsi population and of thousands of moderate Hutus during 100 consecutive days.

Burundi also suffered that ethnic conflict. The small African country was thrown into civil war between 1993 and 2005, after the Hutu uprising against the Tutsi minority in control of the Army. During these long years, massacres were committed and some 300,000 people are thought to have died due to their ethnicity. Although the Arusha Peace Agreement was signed in 2000, it wasn't until years later that the General Ceasefire Agreement promising peace between Hutus and Tutsis was signed in the Tanzanian capital.

The Burundi Truth and Reconciliation Commission for ethnic conflicts investigates the atrocities committed since German colonialism in 1885 until the year 2008. To date, more than 4,000 mass graves have been found and more than 140,000 victims have been identified.



# PEQUEÑO PAÍS

## Petit pays (2020)



1990eko hamarkadaren hasieran, Gaby pozik bizi da Buyumburan, Burundiko hiriburuan, bere familiarekin: bere arreba txikia Ana; bere aita Michel, enpresari frantsesa, eta bere ama Yvonne, ruandarra. Gaby arduragabe bizi da, ikaskideekin bihurrikeriak egiten eta bere "herrialde txikian" bizitzaz gozatzen. Baino egun batean, bi etnia nagusien (hutuak eta tutsiak) arteko tensio politikoak hilabeteak iraun ondoren, gerra zibila piztu da Burundin eta Ruandan. Gaël Fayeren *bestseller* homonimoaren moldaketa.

A comienzos de los años 90, Gaby vive feliz en Bujumbura, la capital de Burundi, con su familia: su hermana pequeña Ana, su padre, Michel, un empresario francés, y su madre, Yvonne, ruandesa. Gaby vive despreocupado, haciendo travesuras con sus compañeros de clase y disfrutando de la vida en su "pequeño país". Hasta que un día, después de unos meses de tensión política entre las dos etnias mayoritarias, hutus y tutsis, estalla la guerra civil en Burundi y en la vecina Ruanda. Adaptación del *bestseller* homónimo de Gaël Faye.

In the early 90s, Gaby lives happily in Bujumbura, the capital of Burundi, with his family: his younger sister Ana, his father, Michel, a French businessman, and his mother, Yvonne, a native of Rwanda. Gaby leads a carefree life, getting up to mischief with his classmates and enjoying life in his "small country". Until one day, following months of political tension between the two main ethnic groups, the Hutus and the Tutsis, civil war breaks out in Burundi and its neighbouring Rwanda. Adaptation of the bestseller of the same name by Gaël Faye.

Lehiaketatik kanpo  
Fueras de concurso  
Out of competition

Frantzia-Belgika

**Zuzendaritza:** Éric Barbier

**Ekoizpena:** Éric Jehelmann, Philippe Rousselet, Jérôme Salle / Jerico, Super 8 Production

**Gidoia:** Éric Barbier

**Argazkia:** Antoine Sanier

**Musika:** Renaud Barbier

**Muntaketa:** Jennifer Augé

**Aktoreak:** Jean-Paul Rouve, Isabelle Kabano, Djibril Vancoppenolle, Dayla De Medina

**Iraupena:** 111 min

**Kontaktua:** A Contracorriente Films  
[info@acontracorrientefilms.com](mailto:info@acontracorrientefilms.com)  
[www.acontracorrientefilms.com](http://www.acontracorrientefilms.com)

# ÁLBUM DE POSGUERRA

Una Producción de 

Basado en una idea original de **GERVASIO SÁNCHEZ**

Dirección **ÀNGEL LEIRO / AIRY MARAGALL** Guión **AMANDA SANS PANTLING / AIRY MARAGALL / ÀNGEL LEIRO**

Productora Ejecutiva **STEPHANIE VON LUKOWICZ** Director de Fotografía **JUAN GONZÁLEZ** Música Original **XAVIER CAPELLAS** Montaje **MARC CAPDEVILA**

Diseño y Mezclas de Sonido **ALBERT MANERA** Sonido Directo **SAMIR HRKOVIC** Etalonaje y Posproducción **ÒSCAR XAVIER GÓMEZ** Dirección de Producción **NENA BLANQUER**



**FILM LUZEAK**

---

**LARGOMETRAJES**

---

**FEATURE FILMS**

---

Gero eta pertsona gehiago daude ehun urte dituztenak. Eta datozen urteetan igoera oso esanguratsua izango da. Estatistikako Institutu Nazionalaren arabera, Espainiako Estatuan gaur egun erroldatuta dauden 100 urtetik gorako 12.551 pertsona daude eta 2070ean 217.344 izango dira.

Hala, urte gehiago eta hobeto bizitzeko edabe magikoa bilatzen duten ikerketa askoren aztergai bihurtu da bizitza-luzera. Bainaz gain da 100 urterako iristeko errezeta? Nolakoa da bizitza etapa horretan?

Genetika, dieta eta bizimodu osasungarriak, osasun kognitiboa, aisialdi aktiboa, erresilientzia eta harreman sozialak dira azterlanetan gehien aipatzen diren gakoak. Gainera, zenbait lekutan harrigarria da 100 urtetik gorako pertsonen kopurua. Leku horiei "planetako eremu urdinak" deitzen zaie: Sardinia (Italia), Okinawa (Japonia), Nicoya penintsula (Costa Rica), Ikaria uhartea (Grecia) eta Loma Linda (Kalifornia).

Gaur egun, COVID-19ren ondorioz, hedabideen fokuan egon dira adin handieneko pertsonak. Ikasi dugu, gizaki gisa, izaki zaurgarriak eta elkarren mendekoak garela; ordea, onartzen eta aitortzen al ditugu zaurgarritasunaren balioa eta pertsona horiek guztion onerako egiten duten ekarpena? Zein dira zahartzaroari buruz gizartea dituen itxaropenak, bizi dugun aldaketa demografiko, sozial, ekonomiko, kultural, teknologiko, politiko... baten testuinguruan? Balioa ematen al diegu adineko pertsonen jakintzari eta inguruneak sortzeko premiari pertsonok zahartu eta gure bizi-proiektuak zentzuz eta esanahiez garatu ahal izateko?

Handia da erronka, eta hartara, ziurrenez, ikasi beharrean izango gara gizartea eraikitzen, non pertsona guztiei eta bizi-ziklo osoan zehar herritar gisa jardutea bermatuko zaien.

---

Cada vez hay más personas centenarias. Y su incremento en los próximos años va a ser muy significativo. El Instituto Nacional de Estadística estima que en el Estado español se pasará de las 12.551 personas de más de 100 años censadas en la actualidad a 217.344 en 2070.

La longevidad se ha convertido en objeto de estudio de muchas investigaciones que buscan la pócima mágica para vivir más años y mejor. ¿Pero cuál es la receta para llegar a los 100 años? ¿Cómo es la vida durante esta etapa?

La genética, una dieta y vida saludables, la salud cognitiva, el ocio activo, la resiliencia y las relaciones sociales son las claves que más se mencionan en los estudios. Además, existen lugares en los que hay un sorprendente número de personas que superan los 100 años. Se conocen como las "zonas azules del planeta": Cerdeña (Italia), Okinawa (Japón), península de Nicoya (Costa Rica), isla de Icaria (Grecia) y Loma Linda (California).

En la actualidad, debido al COVID-19, las personas de más edad han estado en el foco mediático. Hemos aprendido que como humanos somos seres vulnerables e interdependientes, pero, ¿aceptamos y reconocemos el valor de la vulnerabilidad y la contribución que realizan estas personas al bien común? ¿Cuáles son las expectativas sociales con relación a la vejez en un contexto de cambio demográfico, social, económico, cultural, tecnológico, político... como el que vivimos? ¿Ponemos en valor el bagaje de las personas de edad avanzada y la necesidad de crear entornos en los que las personas podamos envejecer y desarrollar nuestros proyectos vitales con sentido y significado?

El reto es grande y pasa seguramente por aprender a construir sociedades que garanticen el ejercicio de la ciudadanía a todas las personas y a lo largo de todo el ciclo vital.

---

More and more people are entering their 100s. And their increase in coming years will be hugely significant. The Spanish National Statistics Institute estimates that in Spain the figures will rise from the 12,551 people aged over a 100 in the current census to 217,344 in 2070.

Longevity has become the focus of many research projects in the endeavour to find the magic potion for longer and better life. But what's the recipe for reaching 100? What's life like during that time?

Genetics, diet and a healthy lifestyle, cognitive health, active leisure, resilience and social relations are the keys mentioned most in the studies. There are also places with a surprising number of people over the age of 100. These are the world's so-called "blue zones": Sardinia (Italy), Okinawa (Japan), the Nicoya Peninsula, Ikaria Island (Greece) and Loma Linda (California).

Today, as a result of COVID-19, the oldest among us have been thrown into the media spotlight. We have learned that as humans we are vulnerable and interdependent beings; but do we accept and recognise the value of vulnerability and the contribution these people make to the common good? What are the social expectations related to old age in a context of demographic, social, economic, cultural, technological, political change... like the one we are living? Do we value the experience of elderly people and the need to create environments in which people can age and develop their life goals with sense and meaning?

The challenge is important and certainly means learning to build societies that guarantee the exercising of citizenship by all people and throughout their whole life cycle.

---

# 100UP (2020)



Mundu osoko 100 urtetik gorako zazpi pertsona dira Heddy Honigmann -**El olvido** (2008), **Buddy** (2018)- dokumentalista perutar/nederlandar beteranoaren lan berriaren protagonistak. Denbora luzez bizi izan dira eta euren egunerokotasuna kontatzen diote kamerari, euren iragana gogora ekarri bitartean. Gizon eta emakume aktiboak dira, gertaera historiko handiak bizi izan dituztenak, bidean maite izan dituzten pertsona asko galdu dituztenak, eta aurrera begira jarraitzen dutenak, nahiz eta batzuetan ez dieten lagunduko euren gorputzek.

Siete personas de más de 100 años de edad de todo el mundo protagonizan el nuevo trabajo de la veterana documentalista peruano-neerlandesa **Heddy Honigmann -El olvido** (2008), **Buddy** (2018)-. Han vivido mucho tiempo y cuentan a la cámara su día a día al tiempo que recuerdan su pasado. Son hombres y mujeres activas que han vivido grandes acontecimientos históricos, que han perdido a muchas personas queridas por el camino y que siguen mirando hacia adelante pese a que sus cuerpos a veces se nieguen a cooperar.

Seven people aged 100+ from all over the world star in this latest work from the veteran Peruvian-Dutch documentary-maker Heddy Honigmann -**El olvido** (2008), **Buddy** (2018)-. All have lived for a very long time and tell the camera about their lives today while remembering their past. These are active men and women who have lived through major historical events, who have lost many loved ones along the way and who continue to look towards the future despite their bodies sometimes failing to cooperate.

Herbehereak-Norvegia-Belgika

**Zuzendaritza:** Heddy Honigmann

**Ekoizpena:** Rogier Kramer, Wilant Boekelman, René Huybrechtse / Dutch Mountain Film, Savage Film, Tenk.tv, EOdocs

**Ekoizpenkidetza:** Bart van Langendonck, Frode Søbstad

**Argazkia:** Adri Schrover

**Musika:** Michelino Bisceglia

**Muntaketa:** Jessica de Koning

**Iraupena:** 93 min

**Kontaktua:** CAT&Docs  
info@catndocs.com  
www.catndocs.com

Gobernuz Kanpoko Erakundeen erreskate-itsasontzien lan humanitarioa kriminalizatu egin da, ontzi horietako arduradunek milioi askoko zehapenei edo espetxe-zigorrei aurre egin behar izateraino. Estatuek "legezkotasuna" betetzeko eskatzen dute; GKEek, berriz, jokoan bizitzak daudela eusten diote. Bizitzak salbatza ez bailitzateke delitu izan behar.

2014tik, Migrazioetarako Nazioarteko Erakundearen datuen arabera, 20.000 pertsona baino gehiago hil dira Mediterraneoan, migrazio-politika eskas eta ez solidario baten erakusgarri. Politika horrek ez die erantzuten milaka pertsonen beharrei, indarkeriatik, jazarpenetik edo pobreziatik ihes egiteko bide segururik ezean, urtero beren bizitzak arriskuan jartzen dituztenen premiei.

Horren aurrean, hainbat GKEk, haien artean CEARek, salatu egin dute Europar Batasunaren migrazio-plan berria, asilo-eskatzaileen premia humanitaroetan oinarritu beharrean, Europako lurraldean haien sarrera geldiarazteria zuzendua. Haien etorrera galarazteko, Europak herrialdeekin akordioak ezartzen jardun du orain arte, besteak beste, Libiarekin: migratzaileen eskubideak urratzen dituen lurraldea, non abusuak, torturak eta hainbat indarkeria modu jasan behar izaten dituzten. Horren erakusgarri dira atxiloketa zentroei egin zaizkien denuntzia ugariak nazioarteko zuzenbidea urratzeagatik.

---

La labor humanitaria de los barcos de rescate de las ONG se ha criminalizado hasta tal punto que varias de sus responsables se enfrentan a sanciones millonarias o incluso a penas de cárcel. Los estados reclaman que se acate "la legalidad", y las ONG defienden que son vidas las que están en juego. Porque salvar vidas no debería ser delito.

Desde 2014, según datos de la Organización Internacional para las Migraciones, más de 20.000 personas han muerto en el Mediterráneo, muestra de una política migratoria insuficiente e insolidaria que no responde a las necesidades de miles de personas que cada año ponen en peligro sus vidas por no contar con unas rutas seguras para escapar de la violencia, de la persecución o de la pobreza.

En este sentido, varias ONG, entre ellas CEAR, han denunciado el nuevo plan migratorio de la Unión Europea, ya que en vez de centrarse en las necesidades humanitarias de las personas demandantes de asilo, se dirige a frenar su entrada en territorio europeo. Para impedir su llegada, Europa ha establecido hasta ahora acuerdos con países como Libia; un territorio hostil que vulnera los derechos de las personas migrantes y en el que sufren abusos, torturas y diferentes formas de violencia. Prueba de ello son las numerosas denuncias de violación del derecho internacional realizadas a los centros de detención.

---

The humanitarian work of NGO rescue ships has been criminalised to the point that several of those responsible for the endeavour are faced with fines amounting to millions or even prison sentences. The states claim that it is a matter of "legality", while the NGOs say that this is a matter of peoples' lives being on the line. Because saving lives should not be a crime.

Since 2014, according to data issued by the International Organization for Migration, more than 20,000 people have died in the Mediterranean. This demonstrates an insufficient and unsupportive policy that fails to meet the needs of the thousands of people who put their lives in danger every year as a result of having no safe routes to escape from violence, persecution or poverty.

In this respect, several NGOs, among them CEAR, have denounced the European Union's new Pact on Migration, given that instead of focussing on the humanitarian needs of asylum seekers, it is aimed at stopping them from entering European territory. To prevent their arrival, until now Europe has established agreements with countries such as Libya, a hostile territory which violates migrant rights and where they suffer abuse, torture and different kinds of violence. Proof of this are the numerous denunciations of the violation of international law made against detention centres.

# AITA MARI (2021)



Lehiaketatik kanpo  
Fueras de concurso  
Out of competition

Euskadi

**Zuzendaritza:** Javi Julio

**Ekoizpena:** Santi Donaire / Nervio

**Gidoia:** Fernando Erre

**Kamera:** Javi Julio, Igor Arabaolaza, Ricardo García Vilanova, Celia Hernández, Pascal Poissonnier, Iñaki Gereñu, Beñat Gereka

**Musika:** Pello Ramírez

**Muntaketa:** Igor Arabaolaza

**Iraupena:** 87 min

**Kontaktua:** Nervio  
santidonaressalido@gmail.com

Stella Maris Berria desegiteko zorian den atunketari bat da. Hala ere, Itsas Salbamendu Humanitarioa GKEko bi kideri, Iñigo Mijangos eta Iñigo Gutiérrez, ezohiko ideia bat sortu zaie: arrantza-ontzia erreskate-ontzi bihurtzea, Mediterraneo itsasoan itotzen diren errefuxiatuak salbatzeko. Horrela jaio zen Aita Mari.

Dokumentalak bi urte baino gehiagoko odisea kontatzen du, berreraiki zenetik lehen ereskatea amaitu arte. Gerratik eta gosetik ihes egiten dutenei laguntzeko herritar anonimoen ahalegin kolektiboaren historia da **Aita Mari**.

El Stella Maris Berria es un atunero destinado al desguace. Sin embargo, Iñigo Mijangos e Iñigo Gutiérrez, dos miembros de la ONG Salvamento Marítimo Humanitario, tienen una idea insólita: transformar el pesquero en un barco de rescate para salvar a las personas refugiadas que se ahogan en el mar Mediterráneo. Así nace el Aita Mari.

Este documental narra la odisea de más de dos años de duración de la nave desde su reconstrucción hasta la culminación del primer rescate. **Aita Mari** es la historia del esfuerzo colectivo de un conjunto de ciudadanos y ciudadanas anónimas para socorrer a personas que huyen de la guerra y el hambre.

The Stella Maris Berria is a tuna fishing boat destined for the scrapyard. However, Iñigo Mijangos and Iñigo Gutiérrez, two members of the Humanitarian Maritime Rescue NGO, have an unusual idea: to transform the fishing boat into a rescue vessel in order to save drowning refugees in the Mediterranean Sea. This is how the Aita Mari was born.

The documentary narrates the odyssey spanning more than two years from the moment the ship was rebuilt until its first rescue. **Aita Mari** is the story of the collective efforts of a group of anonymous men and women to help people as they flee from war and famine.

ACNURek emandako datuen arabera, Bosniako gerran (1992-1995) 200.000 pertsona baino gehiago hil edo desagertu ziren. Gainera, etxetik alde egin behar izan zuten 2,7 milioi pertsonatik gora gerratik ihes egiteko; horien artean, populazio bosniar/musulmanaren aurkako garbiketa etnikoagatik ihes egin zutenak.

Bigarren Mundu Gerraz geroztik Europako hiri batean egindako setiorik luzeenetako bat bizi izan zuen Saravejok: 1.425 egun. Egun bakar batean, Srpska Errepublika autoproklamatuak eta Jugoslaviako Herri Armadak 3.700 bonba jaurti zituzten oraingo Bosnia-Herzegovinako hiriburura.

Sarajevo 11.500 zibilek baino gehiagok galdu zuten bizitza, haien artean 1.600 haurrek, eta 15.000 zauritu izan ziren. Kalkuluen arabera, Sarajevoko 70.000 adingabek ezin izan zuten haurtzaro "normal" batez gozatu.

Indarkeriak, bere forma desberdinetan, egunerokotasuna markatu zuen. Elikadurarak eza, bizi-baldintza txarrak, heriotza eta eskubideen urraketak izan dira gainditu ezin diren ondorio psikologikoek eragileak gerraren biktima diren haurrentzat. Indarkeria "normalizatzen" iritsi ziren; edozein adingabek bezala, maiz, jolastera irtetea besterik ez zuten nahi, horrek zekarren arriskuaz jabetu gabe. Gerrako Haurren Museoak, 1997an eraikiak, haien bizipenak, objektuak eta memoriak biltzen ditu.

Setiatutako Sarajevo Erraildako Haurren Gurasoen Elkarrekin borrokan jarraitzen du justizia egin dadin gerra garaian haurren babesera erasotzen duten krimen horien aurka, indarrean Zuzenbide Humanitarioan eta Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidean.

---

Durante la guerra de Bosnia (1992-1995), se estima que más de 200.000 personas murieron o desaparecieron, y más de 2,7 millones tuvieron que abandonar sus hogares para escapar de la guerra, así como de la limpieza étnica contra la población bosnio-musulmana, según datos aportados por ACNUR.

Sarajevo vivió uno de los asedios más largos realizado a una ciudad en Europa desde la 2<sup>a</sup> Guerra Mundial: 1.425 días. En un solo día las fuerzas de la autoproclamada República Srpska y el Ejército Popular Yugoslavo lanzaron 3.700 bombas sobre la capital de la actual Bosnia y Herzegovina.

En Sarajevo perdieron la vida más de 11.500 civiles, entre ellas 1.600 niñas y niños, e hirieron a 15.000. Se calcula que 70.000 menores de Sarajevo no pudieron disfrutar de una infancia "normal".

La violencia en sus diferentes formas marcó su día a día. La falta de alimentación, las malas condiciones de vida, la muerte y las violaciones de los derechos han sido la causa de repercusiones psicológicas difíciles de superar para los niños y las niñas víctimas de la guerra. Llegaron a "normalizar" la violencia, hasta el punto de que, como cualquier menor, muchas veces lo único que deseaban era salir a jugar, inconscientes del peligro que corrían. El Museo de la Infancia en Guerra, construido en 1997, recopila sus vivencias, objetos y memorias.

La Asociación de Padres de los Niños y Niñas Asesinados del Sarajevo Asediado sigue luchando por que se haga justicia contra estos crímenes que atentan contra la protección de la infancia en tiempos de guerra, vigentes en el Derecho Humanitario y el Derecho Internacional de los Derechos Humanos.

---

During the Bosnian War (1992-1995), it is estimated that more than 200,000 people died or disappeared, and more than 2.7 million had to leave their homes to escape from the war, and from the ethnic cleansing against the Bosnian-Muslim population, according to data published by the UNHCR.

Sarajevo experienced one of the longest sieges to have taken place in a European city since World War II: 1,425 days. On one single day forces of the self-proclaimed Republika Srpska and the Yugoslav People's Army dropped 3,700 bombs on what is the capital of today's Bosnia and Herzegovina.

In Sarajevo more than 11,500 civilians lost their lives, including 1,600 boys and girls, and 15,000 were wounded. It is calculated that 70,000 minors in Sarajevo were unable to enjoy a "normal" childhood.

Violence in its different forms marked their everyday lives. The lack of food, dire living conditions, death and the violation of their rights has been the cause of psychological repercussions difficult to overcome by the boy and girl victims of the war. They came to see violence as "normal", to the extent that, like any child, the only thing they wanted to do was go out and play, oblivious to the risks. The War Childhood Museum, built in 1997, looks at their experiences, objects and memories.

The Association of parents whose children were killed in the siege of Sarajevo continues its fight to obtain justice for those crimes against the protection of children in times of war, as stipulated in Humanitarian Law and International Human Rights Law.

# ÁLBUM DE POSGUERRA (2020)



Laurogeita hamarreko hamarkadan Gervasio Sánchez argazkilari espainiarak haur asko erretratatu zituen Sarajevoko setioan. 25 urte geroago, bertara itzuli eta haitetako batzuekin elkartzen da berriro Gervasio. Zer gertatu zen haien bizitzarekin? Nolakoa izan zen gerraren ondoren haztea? Fotokazetariaren zuri-beltzko argazkien estetika poetikoa kontrastean da kontatzen duten errealtitate basatiarekin. Gauza bera gertatzen da dagoeneko helduak diren pertsonen oroitzapenekin: kontatzen dituzten istorioekin hartzen dute berriro bizitza irudiek, eta behatzaleak gerrak jotako gizakiak ikusten ditu, haurtzaroa nostalgiaz gogoratzen dutenak.

En los años noventa el fotógrafo español Gervasio Sánchez retrató a muchos niños y niñas durante el asedio a Sarajevo. 25 años después Gervasio vuelve y se reencuentra con algunos de ellos. ¿Qué fue de sus vidas? ¿Cómo fue crecer después de la guerra? La estética poética de las fotografías en blanco y negro del fotoperiodista contrasta con la brutal realidad que cuentan. Lo mismo sucede con los recuerdos de las personas, ya adultas, con las que se reúne: las imágenes vuelven a la vida con las historias que cuentan, y las y los espectadores contemplan a seres humanos golpeados por la guerra que recuerdan su infancia con nostalgia.

In the 90s, Spanish photographer Gervasio Sánchez portrayed many girls and boys during the Sarajevo siege. Twenty-five years later, Gervasio goes back and meets some of them again. What happened to their lives? What was it like to grow up after the war? The poetical aesthetic of Gervasio's black and white photographs contrasts with the brutal reality they narrate. The same happens with the memories of these people he meets, now adults: the images come to life with the stories they tell, and the spectator sees human beings affected by the war who look back on their childhood with nostalgia.

Espainia

**Zuzendaritza:** Àngel Leiro,  
Airy Maragall

**Jatorrizko ideia:** Gervasio Sánchez

**Ekoizpena:** Stephanie von Lukowicz  
/ Lukimedia

**Gidoia:** Amanda Sans Pantling,  
Airy Maragall, Àngel Leiro

**Argazkia:** Juan González

**Musika:** Xavier Capellas

**Muntaketa:** Marc Capdevila

**Iraupena:** 75 min

**Kontaktua:** Lukimedia  
stephanie@lukimedia.com  
lukimedia.com

Diktadura frankistak erregimenarekin kritikoak izan ziren apaizak ere zigortu zituen. Espainiak eta Vatikanoak 1953an adostutako konkordatuzko pribilegioei jarraikiz, abade batek zigorra ez zuen bete behar gainerako herritarrekin batera, abadietan, eliza-etxeetan edo laikoenez bestelako lekuetan baizik. Eliza-etxeetan zigorra gauzatzeko arazoak zeudenez gero, Zamorako kartzelako pabiloi bat apaizentzat erabiltzea erabaki zen. Horrela sortu zen apaizentzako espetxe bakarra izan den Zamorako Konkordatu Kartzela. 1968tik 1976ra bitarte erabili zen.

Espetxe horretan sartu zen lehen abadea Alberto Gabikagogeaskoa izan zen, 1968an, euskal kartzeletako torturak aipatzen zituen "homilia subertsibo" batengatik. Haren atzetik, beste abade batzuk sartu ziren. Francisco Fernández Hoyos historialariaren arabera, apaiz gehienak gipuzkoarrak eta bizkaitarrak ziren, baina beste eskualde batzuetaoak ere bazeuden, hala nola Madrilekoak, Galiziakoak eta Asturiaskoak. Haietako asko isunak ez ordaintzeagatik iritsi ziren, baina haiei ere epaiaketa sumarisimoak eta Ordena Publikoko Auzitegikoak egin zizkieten. Arrazoiak honako hauek izan ziren, besteak beste: errepresioaren eta torturaren salaketa, langileen eskubideen defentsa, eskubide nazionalak eta banda armatuari usteaz emandako laguntza. Haietako batzuek aitortu zutenez, torturak jasan zitzuten atxilotzean.

Pabiloian, apaizak baino ez zeuden, baina denak ez zeuden delitu politikoengatik. Kartzelako bizitza gogorra zen, neguko temperatura baxuen eta udako temperatura altuen ondorioz. Gainera, ez zuten intimitaterik, eta elikagaiak urriak ziren. Elikadura osatzeko, senideek eta lagunek bidalitako erreserbak baliatzen zitzuten. Hori dela eta, zigorra kartzela "normaletan" eta gainerako preso politikoekin betetzea eskatzen zuten. Aske geratu ondoren, apaiz horietako gehienak apaizgoa utzi zuten. 2013. urtean, Argentinako María Servini de Cubría epaileari frankismoko krimenei buruz aurkeztutako Argentinako Kereilarekin bat egin zuten 16 apaizek. Egia, justizia eta erreparazioa eskatzen aldarrikapenez ez dute erantzunik izan.

---

La dictadura franquista también castigó a los curas que fueron críticos con el régimen. Los privilegios concordatorios acordados entre España y el Vaticano en 1953 ratificaban que un sacerdote no cumpliese condena con el resto de la población, sino en abadías, casas eclesiásticas o en lugares distintos a los laicos. Las casas eclesiásticas empezaron a presentar complicaciones para llevar a cabo las penas, por lo que se acordó destinar uno de los pabellones de la cárcel de Zamora a los curas. Así se creó la Cárcel Concordatoria de Zamora, única prisión para curas. Estuvo activa entre los años 1968 y 1976.

El primer sacerdote en entrar en esta prisión fue Alberto Gabikagogeaskoa en 1968 por pronunciar una "homilia subversiva" en la que habló de torturas en las cárceles vascas. A este le siguieron otros sacerdotes. Según el historiador Francisco Fernández Hoyos, la mayoría eran guipuzcoanos y vizcaínos, aunque también había de otras regiones como Madrid, Galicia y Asturias. Muchos de ellos llegaron por el impago de multas que derivaban en prisión, pero también fueron sometidos a juicios sumarísimos y del Tribunal del Orden Público. Los motivos iban desde la denuncia de la represión y la tortura, la defensa de los derechos de las y los trabajadores y los derechos nacionales, hasta la supuesta colaboración con banda armada. Algunos de ellos declararon haber sufrido torturas en sus detenciones.

En el pabellón solo había curas, pero no todos estaban allí por delitos políticos. La vida en la cárcel era dura, debido a las bajas temperaturas del invierno y a las altas del verano. Además, no disponían de intimidad y la alimentación era escasa; la completaban con las reservas enviadas por familiares y amistades. Por ello, reivindicaban cumplir condena en cárceles "normales", con el resto de presos políticos. Una vez en libertad, la mayoría de estos curas dejaron el sacerdocio. Ya en 2013, 16 curas se sumaron a la Querella Argentina sobre los crímenes del franquismo presentada ante la jueza argentina María Servini de Cubría. Sus reivindicaciones de verdad, justicia y reparación no han tenido respuesta.

---

The Franco dictatorship also punished priests critical with the regime. The concordat privileges agreed to between Spain and the Vatican in 1953 ratified that clerics should not complete their prison sentence with the rest of the population, but in abbeys, clergy houses or in places other than those used for secular purposes. The clergy houses started to experience complications when carrying out the sentences, and an agreement was reached to assign one of the Zamora prison blocks to priests. This led to creation of the Zamora Concordat Prison, the only one of its kind. It was active between the years 1968 and 1976.

The first priest to enter the prison was Alberto Gabikagogeaskoa in 1968 for having given a "subversive homily" in which he spoke about torture in the Basque jails. He was followed by other clerics. According to the historian Francisco Fernández Hoyos, the majority were from Gipuzkoa and Bizkaia, although there were also others from different regions such as Madrid, Galicia and Asturias. Many of them were sent to prison for having failed to pay fines, but they were also tried in summary proceedings and by the Court of Public Order. The reasons ranged from the denunciation of repression and torture, the defence of workers' rights and national rights, to the supposed collaboration with armed groups. Some of them claimed to have suffered torture while in detention.

In the block there were only priests, but not all were there for political crimes. Life in the prison was harsh, given the cold temperatures during winter and the heat in summer. They also had no privacy and food was scarce; it was supplemented with the supplies sent by relatives and friends. They therefore called for the right to complete their sentences in "normal" prisons with the other political prisoners. On regaining their freedom, the majority of these priests left the cloth. In 2013, 16 priests joined the Argentina Lawsuit against crimes under Franco presented to the Argentinian judge María Servini de Cubría. Their demands for truth, justice and repair have received no response.

# APAIZ KARTZELA (2021)



Bidaia erreal bat egoera itxuraz irreal batean. 1968-1976 aldian Zamorako apaizen kartzelan preso egon ziren lau apaiz presondegira itzultzen dira. Apaiz horietako batzuek hamar urtetik gorako zigorak jaso zituzten frankismoaren errepresioa salatzen zuten sermoiengatik. Konkordatu-kartzela hori Francok berak sortu zuen, Vatikanoarekin sinatutako Konkordatua baliatuta. Abadeentzako kartzela bakarra izan zen munduan.

Madril, Galizia, Katalunia eta Euskal Herriko 53 abadek espelte horretara egindako nahitaezko lekualdaketan jasan zuten bidaia errealaren istorioa da hau. Oraindik ere ezezaguna den istorio hori berreskuratzeko bidaia. Ahanzturaren aurkako bidaia.

Un viaje real en una situación aparentemente irreal. Cuatro sacerdotes presos en la cárcel de curas de Zamora (1968-1976) vuelven a visitar la prisión donde fueron condenados, en algunos casos, a penas de más de diez años por decir sermones en los que denunciaban la represión franquista. Fue precisamente Franco quien, utilizando el Concordato firmado con el Vaticano, creó esa Cárcel Concordataria, la única del mundo para religiosos.

Esta es la historia del viaje real al que fueron sometidos 53 religiosos de Madrid, Galicia, Cataluña y País Vasco en su traslado forzoso a dicho penal. Un viaje que quiere rescatar una historia desconocida aún hoy en día. Un viaje contra el olvido.

